

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

19/2019 Foru Araua, azaroaren 20koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzeko martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauaren ondorioak zehazten dituena

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko azaroaren 20an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

19/2019 Foru Araua, azaroaren 20koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzeko martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauaren ondorioak zehazten dituena.

ZIOEN AZALPENA

Auzitegi Gorenaren 2018ko urriaren 3ko 1462/2018 Epaiak legezko doktrina gisa ezarri zuen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita zeudela Gizarte Segurantzatik jasotako amatasun prestazio publiko jakin batzuk.

Auzitegi Gorenaren epai horren ondorioz, eta bai etorkizunari begira bai iraganean sortutako zerga egitatei dagokienez zer aukera zegoen ikusita, Arabako Batzar Nagusiek erabaki zuten Gizarte Segurantzaren legeria orokorrean araututako amatasun eta aitatasun prestazioen salbuespen kasuak zabaltzea, amatasunak babes berezia merezi duelako eta garrantzi handia duelako. Arautze berri hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzeko martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauan jaso zen.

Gainera, foru arau horrek ezarri zuen araututakoaren zati batek atzeraeragina izango zuela 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako ekitaldiei dagokienez, baldin preskribatuta ez ba-zeuden.

Justizia, ekitate eta, batez ere, berdintasun arrazoiak direla eta, zehaztu beharra dago per-sona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzeko martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauak ezarri-tako atzeraeraginak barnean hartu behar dituela zerga horren pean dauden guztiak, nahiz eta haiengan eragina duten administrazio egintzak irmoak izan administrazio bidean.

Artikulu bakarra. Aldatzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen mar-txoaren 27ko 10/2019 Foru Araua

Beste lerroalde bat, bigarrena, gehitzen zaio pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga al-datzen duen martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauaren azken xedapenetatik lehenengoari. Gaur egun dagoen testua lehenengo lerroaldea izango da, eta hona hemen gehituko den testua:

Era berean, atzeraeraginezko ondorio horiek – aurreko lerroaldean ezarri direnak eta lerro-alde horretan aipatutako suposizioetarako–, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren pean daudenei ezarriko zaizkie. Hori hala izango da, nahiz eta eragiten dieten egintzak irmoak izan administrazio-bidean, eta nahiz eta administrazio-bideko edozer errekurtsoren edo Arabako Lege eta Administrazioaren aurrean egindako edozer erreklamazioaren ondoriozko berariazko ezezpen baten xede diren egintzak irmoak izan.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren eraginpean dauden zergadunek eskaera egin beharko diote Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta han bertan adierazitako ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA